



KOMUNIKATU
BATERATUA



OSAGARRIEN DEIALDIAK NORMALTASUNERANTZ

Gaur, abenduak 23, **osagarrien 2016ko deialdiko C tramuak esleitzea** onetsi du Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak eta, beraz, **2017ko urtarriletik aurrerako eragin ekonomikoa izango dute**. Zehazki, 136 irakasle-ikertzailek eskuratuko dute C1 tramua lehen aldiz; 66k, C2 tramua; eta 63k, C tramu biak. Horiekin batera, **2015eko deialdian esleitutako B eta A tramu berriak ere ordaintzen hasiko dira**.

Aurrera begira, 2017an zehar, 2016ko deialdiko B eta A tramuak ebaluatu eta ebatzi ahala, 2013ko, 2014ko eta 2017ko deialdiak gauzatu beharko ditu Gizarte Kontseiluak hurrenez hurren, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuta dituen eta bideratu dizkion deialdiak, hain zuzen.

Bukatzeko, inoiz hautsi behar ez zen **osagarrien deialdien normaltasuna berreskuratzea espero behar dugu aurrerantzean ere**. UPV/EHUko zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzak eta bion arteko zubia den Gizarte Kontseiluak gai honetan arduraz jokatzeari eskatzen dugu.

Euskal Herria, 2016ko abenduaren 23a.